DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gazteria

Agirre Miramón, 4 | Tel. 943481909 | gazteria@donostia.eus | www.donostia.eus
20002 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Esp./Exp.: 2023-ZUAP-00008

**GAZTEEN AISIARAKO ETA ELKARTZEKO GUNE DIREN LOKALETAKO JARDUERAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA EGITEKO ETA SUTEAK PREBENITZEKO BALDINTZAK BETETZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ETA ARAUTZEKO OINARRIAK**

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA COMUNICACIÓN PREVIA DE ACTIVIDAD Y CUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES DE PREVENCIÓN CONTRA INCENDIOS, DE LOS LOCALES DESTINADOS A ESPACIOS DE OCIO Y REUNIÓN DE JÓVENES**

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Artikulua.- Helburua, xedea eta araubide juridikoa

1.- Oinarri hauen helburua da 2023ko ekitaldian gazteen aisiarako lokalak ezarri edota erregularizatzeko laguntzak emateko jarraitu beharreko arauak ezartzea. Ezartze edo erregularizatze hori jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioz egingo da, gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalen erabilera arautzeko 2015eko martxoaren 14an GAOn argitaratutako udal ordenantzan (aurrerantzean, «Ordenantza») xedatutakoari jarraituz.

2.-Dirulaguntza hauek Donostiako Udalaren 2021-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita daude, eta dirulaguntza honi dagokion Planaren fitxan definitutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen dute.
Hona hemen helburu horiek: gazte-jarduera sustatzea, aldez aurreko jakinarazpenaren eskaeratik eratorritako gastuak ordaintzen lagunduz eta, horrela, lokal horien erregularizazioa sustatuz.
Era berean, dirulaguntzaren helburua da lokal horiek ordenantzak ezartzen dituen segurtasun-neurriak betetzea.

3.- Ondoko gastu hauek dira laguntzaren xedea:

- Ordenantzako 3. artikuluan ezarritako aurretiazko komunikazioaren eskaerari lagundu behar dion dokumentazioa (lokalaren kondizioak deskribatzen dituen oroitidazkia; Ordenantzako III. kapituluan ezarritako baldintzak lokalak betetzen dituela justifikatzen duen txostena, teknikari eskumendunak idatzia; eta planoak) egitetik eratorritakoak.

-Suteak prebenitzeko baldintzak betetzeko, dagozkion instalazio hauek egitetik eratorritako gastuak: larrialdiko argiak eta ebakuazio seinalizazioaren instalazioa, hauts balioaniztunezko itzalgailuen instalazioa eta suteen aurkako babes baliabideak adierazteko seinaleen instalazioa,

## CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1.- Finalidad, objeto y régimen jurídico

1.- La finalidad de las presentes Bases es establecer las normas que han de regir la concesión de las ayudas, durante el ejercicio 2023, para la implantación y/o regularización de los locales de ocio para jóvenes que, de conformidad con lo dispuesto en la Ordenanza Municipal reguladora de los locales destinados a espacio de ocio y reunión de los/las jóvenes publicada en el BOG de 14 de marzo de 2015 (en adelante la Ordenanza), se llevará a cabo mediante la comunicación previa de actividad clasificada.

2.-Estas subvenciones están previstas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2021-2023 del Ayuntamiento de San Sebastián, contribuyendo al logro de los objetivos estratégicos y específicos definidos en la ficha del Plan correspondiente a esta subvención y que son los siguientes: promocionar la actividad juvenil ayudando a sufragar los gastos derivados de la solicitud de comunicación previa y fomentando de esta manera la regularización de dichos locales.
Así mismo, eta subvención también tiene como objetivo , el cumplimiento por parte de estos locales de las medidas de seguridad que establece la ordenanza.

3.- Constituyen el objeto de la ayuda los gastos derivados de:

- La elaboración de la documentación que ha de acompañar a la solicitud de comunicación previa, prevista en el artículo 3 de la Ordenanza (Memoria descriptiva de las condiciones del local, Informe redactado por técnico competente justificativo de que el local cumple las condiciones establecidas en el Capítulo III de la Ordenanza y Planos).

- Los gastos derivados de la instalación del alumbrado de emergencia y señalización de evacuación, instalación de extintores e instalación del sistema de detección de incendios correspondientes, siguiendo a lo establecido en el

12344n II

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

betiere Ordenantzaren 8. artikuluan ezartzen diren irizpideei jarraituz.

4.- 2023ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era arte aurkezten diren jardueraren aurretiazko komunikazioetarako izango dira dirulaguntzak eta baita, data berdinetan egindako larrialdiko argiak eta ebakuazio seinalizazioaren instalazioa, hauts balioaniztunezko itzalgailuen instalazioa eta suteen aurkako babes baliabideak adierazteko seinaleen instalaziotik eratorritako gastuak ere. 2022Ko abenduan aurkezten diren jardueraren aurretiazko komunikazioetarako eta gastuetarako ere izango dira dirulaguntza hauek.

5.- Dirulaguntzak emateko prozedura arautuko du Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko errege dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta oinarri hauetan ezarritakoak ere. Dira laguntzak zuzenean emateko araubideaz onartuko dira, gazteentzako aisiarako eta elkartzeko guneak erregularizatzeak duen interes publiko eta sozialaren izenean, eta Dirulaguntzen Lege Orokorreko (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) 22.2.c) artikuluan xedaturikoan oinarri hartuta.

6.- Dirulaguntza hauek martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren esparruan emango dira (1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena). Dekretu horren 23.2 artikuluak ezartzen duenez, sexu-diskriminazioagatik edo berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso dutenei debekatu egin behar zaie dirulaguntza publikoak eskuratzea.

**2. Artikulua.- Betekizunak eta onuradunak**

1.- Laguntza hauek jaso ahal izateko, nahitaezko betekizuna da lokalak Donostiako udalerrian egotea.

2.- Laguntza hauen onuradun izan daitezke pertsona fisikoak, juridikoak edo pertsona fisiko nahiz juridikoen taldeak, baldin, sustatzailetzat, Ordenantzako 3. artikuluan xedatutako jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa egiten badute.

Sustatzaile bakoitzeko, gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokaletako jarduera sailkatuaren aurretiazko hiru komunikazio egiteak eragindako gastuak eta hiru lokalei dagozkien gastuak lagundu ahalko dira diruz, gehienez ere.

artículo 8 de la Ordenanza, relativo a las condiciones de prevención contra incendios.

4.- Serán objeto de subvención las comunicaciones previas de actividad y los gastos derivados del cumplimiento de la instalación del alumbrado de emergencia y señalización de evacuación, instalación de extintores e instalación del sistema de detección de incendios, realizados entre el 1 de enero y el 30 de noviembre de 2023. También serán objeto de esta subvención las comunicaciones previas de actividad y los gastos realizados en diciembre 2022.

5.- El procedimiento de concesión se regirá por lo establecido en la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre, por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la citada Ley y por lo establecido en las presentes Bases. Las ayudas se otorgarán en régimen de concesión directa en aras del interés público y social derivado de la regularización de los espacios de ocio y reunión para jóvenes y al amparo de lo dispuesto en el artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

6.-Asimismo, la concesión de las presentes subvenciones se desarrollará en el marco del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, cuyo artículo 23.2 establece que cabe prohibir el acceso a las subvenciones públicas a quienes hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad.

**Artículo 2.- Requisitos y beneficiarios**

1.- Será requisito para acceder a estas ayudas que los locales estén situados dentro del término municipal de San Sebastián.

2.- Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas físicas, jurídicas o agrupaciones de personas físicas o jurídicas que, a título de promotoras, realicen la comunicación previa de la actividad clasificada prevista en el artículo 3 de la Ordenanza.

Por cada promotor/a, se podrán subvencionar como máximo los gastos derivados de tres comunicaciones previas de actividad clasificada para locales destinados a espacio de ocio y reunión de jóvenes, así como los gastos correspondientes a tres locales.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

3.- Ezingo dira dirulaguntza hauen onuradun izan Dirulaguntzen Lege Orokorreko (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa; BOE, 2003ko azaroaren 18a) 13.2 artikuluan jasotako inguruabarretakoren batean diren pertsonek edo erakundeek.

Pertsona taldeen kasuan, ez taldea, ez kideetako bat ere ezingo dira sartuta egon Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 artikuluan dirulaguntzak jasotzeko xedatuta dauden debekuetan.

4.- Parte hartzeko debeku baten eraginpean egongo dira, eta ezingo dute inolako laguntzarik jaso sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen jarduerarik edo 3.1 artikuluan aurreikusitako bereizkeria anizkoitzeko faktoreen ondoriozko jarduerarik, ezta sexu-bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.
Era berean, ezin izango dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresek, ez eta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatzen sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legedian ezarritakoaren arabera.

5.- Era berean, ezingo zaie dirulaguntzarik eman, Donostiako Udalarekin egindako zorrengatik premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrei edo erakundeei, ez eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean ez dituztenei ere, harik eta zor horiek egiaz ordaintzen eta kitatzen edo betetzen diren arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearaztea etenda badaude.

6.- Aurreko idatz zatietan aipatu diren onuradun izateko debekuetan sartuta ez egotearen justifikazioa, eskatzaileak eskabide ereduan emandako erantzukizunezko adierazpenaren bidez egin ahalko da, edota Dirulaguntzen Lege Orokorreko (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) 13.7 artikuluan ezarritako bideetako edozein baliatuz; gainera, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatu beharko da, ondoren xedatutako eran.

Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Udalaren Diru Bilketarekikoak bete izana egiaztatzeko, eskabidearekin batera aurkeztuko dira zerga betebeharrak (Ogasunarekikoak eta Udalaren Diru

3.- No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas o entidades en quienes concurra algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE de 18 de noviembre de 2003).

En el caso de agrupaciones de personas, ni la agrupación ni ninguno de sus miembros podrá estar incurso en las prohibiciones para la obtención de subvenciones previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

4.-Estarán incursas en una prohibición para concurrir y no podrá recibir ningún tipo de ayuda ninguna actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1, ni tampoco las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.
Tampoco podrán recibir ayudas o subvenciones las empresas que, debiendo tener un plan de igualdad vigente según la normativa del Estado, no lo tengan, ni aquellas empresas de más de 50 personas trabajadoras que no acrediten haber establecido medidas para prevenir y combatir el acoso sexual o acoso por razón de sexo en los términos establecidos por la legislación del Estado en materia de igualdad de mujeres y hombre

5.- Tampoco podrán concederse subvenciones a los/las particulares o entidades que se hallen incursos en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de San Sebastián, ni aquellos que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

6.- La justificación de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario a que se refieren los apartados anteriores podrá realizarse mediante declaración responsable otorgada por la persona solicitante en el modelo de solicitud y o a través de cualquiera de los medios contemplados en el art. 13.7 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones sin perjuicio de lo dispuesto seguidamente sobre la acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

El cumplimiento de obligaciones tributarias, con la Seguridad Social y con Recaudación Municipal se acreditará mediante la presentación junto con la solicitud, de los certificados de hallarse al corriente en

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea · Idazkaritza
Junta de Gobierno Local · Secretaría

Bilketarekikoak) eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen egiaztagiriak.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten ez badu; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostiako Udalak zuzenean kontsultatuko dizkie administrazio publiko eskudunei prozedura hau ebazteko ondorengo informazioak:

-Gazteen aisiarako eta elkartzeko establezimendu-jardueraren aurretiazko jakinarazpena.
-Udalarekiko ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak.
-Ogasunarekiko ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundia.
-Gizarte Segurantzarekiko ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak.

Dirulaguntzak eskatzeko unean eta ordainketa bakoitzaren unean Udalaren Diru Bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituztenei, 10 eguneko epea emango zaie, egoera hori jakinarazten zaien egunetik, betebehar horretan egunean daudela egiaztatzeko.

**3. Artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntza izango da:

- Aurretiazko komunikazioa egiteko beharrezko dokumentazioa idazteak eragindako gastuen %100erainokoa, laguntzaren zenbatekoa inoiz ere ezingo delarik 900 euro baino gehiago izan lokal bakoitzeko.

- Larrialdiko argiak eta ebakuazio seinalizazioaren instalazioa, hauts balioaniztunezko itzalgailuen instalazioa eta suteen aurkako babes baliabideak adierazteko seinaleen instalaziotik eratorritako gastuak, inoiz ere ezingo direlarik 900 euro baino gehiago izan lokal bakoitzeko.

**4. Artikulua.- Laguntzen izaera subsidiarioa eta bateragarritasuna**

el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda y Recaudación Municipal) y frente a la Seguridad Social.

No obstante, en virtud de lo dispuesto en el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Además, la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos salvo que el interesado se opusiera a ello, en cuyo caso, tendría que aportar los certificados.

El Ayuntamiento de San Sebastián consultará directamente a las Administraciones Públicas competentes la siguiente información para la resolución de este procedimiento:

-Comunicación previa de actividad de establecimiento destinado a espacios de ocio y reunión de jóvenes.
- Certificados de estar al corriente del pago con el Ayuntamiento.
- Certificados de estar al corriente del pago con Hacienda Foral de Gipuzkoa, Bizkaia y Álava.
- Certificados de estar al corriente de pago con la Seguridad Social.

A las personas que, en el momento de la solicitud de subvención y de los diferentes pagos, no se encuentren al corriente del cumplimiento con Recaudación municipal, Hacienda Foral y/o Seguridad Social, se les concederá un plazo de 10 días, a contar desde el día siguiente a aquél en que se les comunique tal circunstancia, para acreditar estar al corriente en dicho cumplimiento.

**Artículo 3.- Cuantía de la subvención**

La subvención podrá alcanzar:

- Hasta el 100% de los gastos originados por la redacción de la documentación necesaria para la realización de la comunicación previa sin que, en ningún caso, el importe de la ayuda pueda ser superior a 900€ por local.

- Hasta los 900€ de los gastos derivados del cumplimiento de la instalación del alumbrado de emergencia y señalización de evacuación, instalación de extintores e instalación del sistema de detección de incendios por local.

**Artículo 4.- Naturaleza subsidiaria y compatibilidad de las ayudas**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

1.- Laguntza hauek bateragarri izango dira Estatuko nahiz nazioarteko sistema publiko nahiz pribatuetatik datozen eta oinarri hauetan ezarritako xede bera finantzatzeko diren beste dirulaguntza, kalte ordain, laguntza edo sarrera edo baliabide batzuekin, baldin elkartuta ez badute gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

Las presentes ayudas serán compatibles con otras subvenciones, indemnizaciones, ayudas o ingresos o recursos procedentes de sistemas públicos o privados, nacionales o internacionales, que tengan por objeto la financiación de idéntico objeto al contemplado en las presentes Bases, siempre que conjuntamente no superen el coste de la actividad subvencionada.

**5. Artikulua.- Onuradunen betekizunak**

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzen onuradunek honako betekizun hauek izango dituzte:

- Dirulaguntza ematearen oinarria den jarduera egitea edo dagokion konpromisoa hartzea.
- Indarrean den legedian xedatutakoarekin bat, dirulaguntza eman duen organoak egin beharreko egiaztatze ekintzei men egitea eta haiek egiten laguntzea, bai eta kontrol organoek egin dezaketen egiaztatze edo kontrol ekintza oro ere. Aipatu ekintzak gauzatzeko, eskatzen den informazio oro eman beharko du.
- Lau urteko epean gordetzea jasotako funtsak aplikatu izanaren egiaztagiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol ekintzak ahalbidetze aldera.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzearren Estatuko nahiz nazioarteko beste edozein Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu izana dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea, halakorik lortu bada.
- Dirulaguntza jasotzeko kontuan hartu zen edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea.
- Jasotako funtsak itzultzea, baldin oinarri hauetan ezarritako egoeraren bat gertatzen bada.

**Artículo 5.- Obligaciones de los/as beneficiarios/as**

Será obligación de los/as beneficiarios/as de las subvenciones objeto de las presentes Bases, las siguientes:

- Realizar la actividad o adoptar el compromiso que fundamenta la concesión de la subvención.
- Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.
- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.
- Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.
- Comunicar la modificación de cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
- Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en estas bases.

**II. KAPITULUA**

**DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

**CAPÍTULO II**

**PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea
Junta de Gobierno Local - Secretaría

**6. Artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua**

1.- Jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkeztu eta gero egingo dira eskabideak eta inprimakiak behar bezala beteta, modu telematiko edo aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira.

Ahal dela, bide telematikoa erabiliko da udal webgunearen bitartez eta bertan ezarritakoari jarraituz.

www.donostia.eus

Aurrez aurre aurkeztu ezkero, eskabideak Udalaren erregistro orokorretako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira, erregistro horietan emango den eredu normalizatua erabiliz, edota www.donostia.eus udal webgunearen bitartez.

Udalaren erregistroak:

Udalinfo, Herritarrentzako Arreta Bulegoa:

- **Arroka plazan, 5**. Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.
- **Easo 41en**. Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.
- **San Martzial plazan**, 4. Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.
- **Morlanseko biribilgunean**, 1. Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabilita aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Eskabideak aurkezteak esan nahiko du oinarri hauek onartzen direla, bai eta hemen jasotako baldintzak, betekizunak eta betebeharrak ere.

2.- Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskatzailearen NANaren, IFZren edo dokumentu baliokideren fotokopia.
- Nortasun juridikorik gabeko taldeek aurkeztutako eskabideen kasuan, gainera, taldeko kide guztiek izenpetutako hitzarmena aurkeztu beharko dute. Hitzarmen horretan datu hauek behintzat agertu beharko dira: taldeko kideen identifikazioa; ordezkari bat izendatzea onuradun bezala taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko aski ahal duena; eskatutako dirulaguntzaren

**Artículo 6.- Plazo y presentación de las solicitudes.**

1.- Las solicitudes se realizarán tras la presentación de la comunicación previa de la actividad y los impresos, debidamente cumplimentados, podrán presentarse de forma telemática o presencial.

Se presentarán, preferentemente, por el canal telemático a través de la web municipal, conforme a los requerimientos en ella establecidos.

www.donostia.eus

En el caso de utilizar el canal presencial, las solicitudes se podrán presentar en cualquiera de los Registros Generales del Ayuntamiento, mediante el modelo normalizado que se facilitará en los mismos Registros o a través de la web municipal.

Registros municipales:

Udalinfo, Oficina de Atención Ciudadana:

- En **Plaza Arrroka, 5**. De lunes a viernes de 9:00 a 14:00.
- En **Easo 41**. De lunes a viernes, de 9:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:00.
- En la **plaza San Marcial**, 4. De lunes a viernes de 9:00 a 14:00.
- En la **Rotonda de Morlans**, 1. De lunes a viernes de 9:00 a 14:00.

Las solicitudes podrán, igualmente, presentarse a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La presentación de solicitudes presupone la aceptación de estas Bases, así como de las condiciones, requisitos y obligaciones que se contienen en la misma.

2.- A las solicitudes deberá acompañarse la siguiente documentación:

- Fotocopia del DNI, CIF o documento equivalente del/la solicitante.
- En el caso de solicitudes presentadas por las agrupaciones sin personalidad jurídica, deberán presentar, además, convenio firmado por todos/as los/as integrantes de la agrupación en el que figuren, al menos, los siguientes datos: identificación de los miembros que conforman la agrupación, designación de un/a representante con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que como beneficiario

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

zenbatekotik, taldeko kide bakoitzari dagokion ehunekoa zehaztea; jakinarazpenetarako helbide bat izendatzea; taldearen ordezkariaren izenean dagoen kontu-korronte zenbaki bat izendatzea; eta Dirulaguntzen Lege Orokorreko 39. eta 65. artikuluetan aipatutako preskripzio epea (lau urte) igaro arte taldea desegingo ez delako konpromisoa.

- Zerga-betebeharrak (Ogasunarekikoak nahiz Udalarekikoak) eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela frogatzen duten ziurtagiriak, erakunde eskatzailea Donostiako Udalak kontsulta egitearen aurka baldin badago edo zergak Euskadin ordaintzen ez baditu.

- Dirulaguntzaren xede diren gastuak justifikatzeko fakturak.

3.- Deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea, oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2023ko azaroaren 30era arte iraungo du.

**7. Artikulua. Eskabidea zuzentzea eta hobetzea**

1.- Eskabideak edo harekin batera doan dokumentazioak akatsen bat badu edo osoa ez bada, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko, Udaletxeko Iragarki taularen bitartez (http://www.donostia.eus/bulegobirtuala/ediktuenetairagarkientaula). Horrela egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutako eran eman beharreko ebazpena eman eta gero.

**8. Artikulua. Izapideak**

1.- Prozeduren izapideak egitea Donostia Gazteriari dagokio.

2.- Organo horrek ofizioz egingo ditu ebazpen proposamena egiteko erabili behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezko deritzen jarduketa guztiak. Beharrezko deritzen txosten guztiak eskatu ahalko ditu; txosten horiek hamar eguneko epean eman beharko dira, salbu eta epe laburrago edo luzeagoan ematea eskatu bada. Azken kasu horretan, epea gehienez bi hilabete izango da.

corresponde a la agrupación, el % del importe de la subvención solicitada correspondiente a cada miembro de la agrupación, designación de un domicilio a efectos de notificaciones, designación de un número de cuenta corriente a nombre del/la representante de la agrupación y el compromiso de no resolución de la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción (cuatro años) a que se refieren los artículos 39 y 65 de la Ley General de Subvenciones.

- Certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda y Recaudación municipal) y frente a la Seguridad Social en el caso de que la entidad solicitante se oponga a su consulta por parte del Ayuntamiento de San Sebastián o en el caso de no tributar en el País Vasco

- Facturas justificativas de los gastos objeto de subvención.

3.- El plazo de presentación de solicitudes de esta convocatoria se iniciará el día siguiente al de publicación de las Bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y se mantendrá vigente hasta el 30 de noviembre de 2023.

**Artículo 7. Subsanación y mejora de la solicitud.**

1.- Cuando la solicitud o la documentación que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta se requerirá al/la interesado/a para que en un plazo de 10 días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos a través Tablón de Anuncios del Ayuntamiento (http://www.donostia.eus/oficinavirtual/tablondedictosyanuncio). Si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015.

**Artículo 8. Instrucción.**

1.- La instrucción de los procedimientos corresponderá a Donostia Gazteria.

2.- Este órgano realizará de oficio cuantas actuaciones estime oportunas para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución. Podrá solicitar cuantos informes estime necesarios, que deberán ser emitidos en el plazo de diez días, salvo que requiera su emisión en un plazo menor o mayor, en este último caso no superior a dos meses.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

3.- Espedientea izapidetuta, organo izapidegileak Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztuko dio, ebatzi dezan; hala ere, Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetu ahalko du.

3.- Instruido el expediente el órgano instructor lo elevará a la Junta de Gobierno Local, sin perjuicio de las delegaciones que esta realice para su resolución.

**9. Artikulua. Ebazpena eta ordainketa**

**Artículo 9. Resolución y pago**

1.- Onuradun izateko baldintzak betetzea egiaztatzen duten eta diruz lagundu daitekeen gastua justifikatzen dutenei emango zaizkie dirulaguntzak, aurrekontu kreditua agortu arte. Lehentasun ordena bat ezarriko da, erregistroan sartu diren ordenari jarraituz; halakorik izanez gero, akatsak zuzendu ziren edo dirulaguntzak emateko betekizun eta baldintzak betetzea justifikatzeko dokumentazio osoa aurkeztu zen unea aintzat hartuta.

1.- Las subvenciones se otorgarán, hasta agotar el crédito presupuestario, a quienes acrediten la condición de beneficiario/a y justifiquen el gasto subvencionable, estableciéndose un orden de prelación que atenderá al orden de entrada en el registro, referido, en su caso, al momento de subsanación de defectos o de aportación de la documentación completa justificativa del cumplimiento de los requisitos y condiciones para la concesión de las subvenciones.

2.- Eskabideak ebazpen arrazoituz ebatziko dira, eskabidea udal erregistroan sartu zenetik gehienez ere bi hilabeteko epean. Epe hori igarota ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, eskabidea isiltasun administratiboz ezetsi dela joko da, nahiz eta Administrazioak prozeduran berariazko ebazpena emateko betebeharra duen. Bi kasuetan, legez egoki diren errekurtsoak aurkeztu ahalko dira.

2.- Las solicitudes se resolverán de forma motivada en el plazo máximo de seis meses desde la fecha en que aquellas hayan tenido entrada en el registro del Ayuntamiento. Transcurrido dicho plazo sin haberse dictado y notificado la resolución, la solicitud se entenderá desestimada por silencio administrativo, no obstante la obligación de la Administración de dictar resolución expresa en el procedimiento. En ambos casos, podrán interponerse los recursos legalmente procedentes.

Ebazpenean, dirulaguntzaren kopurua, ordainketa modua, eta oinarri hauetan edota emateko unean indarrean den araudian galdatutako beste baldintza eta betekizunak adieraziko dira.

En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención, la forma de pago y demás condiciones y requisitos exigidos en estas Bases o en la normativa vigente en el momento de su concesión.

3.- Ebazpena jakinarazita, onuradunek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko; epe hori ebazpena jakinarazten den unetik zenbatuko da. Onuradunek dirulaguntza onartu dutela joko da, baldin aipatu epean ukoa berariaz adierazi ez badute.

3.- Notificada la resolución, las personas beneficiarias dispondrán de un plazo de 15 días naturales para renunciar a la subvención, contados desde el momento de la notificación de la resolución. Se entenderá aceptada la subvención por parte de las personas beneficiarias si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente la renuncia

4.- Emateko ebazpenarekin, emandako zenbateko osoa ordainduko da.

4.- Con la Resolución de concesión se procederá al abono de la cuantía total concedida.

**10. Artikulua.- Laguntza justifikatzea**

**Artículo 10.- Justificación de la ayuda.**

2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 30.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz, emandako dirulaguntzek ez dute justifikaziorik eskatuko, laguntza ematea arrazoitzen duen egoeran egotea egiaztatzea besterik. Horretarako, oinarri hauetan adierazitako dokumentu eta egiaztagiriak aurkeztuko dira.

De conformidad con lo establecido en el artículo 30.7 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, las subvenciones concedidas no requerirán otra justificación que la acreditación de encontrarse en la situación que motiva la concesión de la ayuda, para lo cual se aportarán los documentos y justificantes contemplados en las presentes Bases.

**11. Artikulua.- Itzultzea, eta arau-hausteak eta zigorrak**

**Artículo 11.- Reintegro e Infracciones y Sanciones**

Oinarri hauetan arautukako dirulaguntzak arautuko dituzte Dirulaguntzen Lege Orokorreko (38/2003

Las subvenciones reguladas en estas Bases se regirán en materia de reintegro por lo establecido en

Legea, 2003ko azaroaren 17koa) 36. artikulutik 43.era bitartekoek, eta haien korrelatibo diren 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 91. artikulutik 101.era bitartekoek. Arau-hausteei eta zigorrei dagokienez, lege horretako 52. artikulutik 69.era bitartekoetan eta haren araudiko 102. eta 103. artikuluetan xedatutakoari jarraikiko zaio.

los artículos 36 a 43 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de Subvenciones y sus correlativos del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, artículos 91 a 101. En cuanto a las infracciones y sanciones, se estará a lo dispuesto en los artículos 52 a 69 de las misma Ley y 102 y 103 de su Reglamento.

**12. Artikulua.- Ekonomia baliabideak**

1.- Laguntza hauetara 6.000 euro bideratuko dira. Hala ere, gerora kopuru hori handitu ahalko da, kreditu sorkuntzetatik edo txertatzeetatik datozen aurrekontu baliabide agortu gabeen ondorioz. Aurrekontu baliabide handiagoa izanez gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta ez da eskabideak aurkezteko beste epe bat irekiko.

Orobat, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da laguntza hauetara bideratutako ekonomia baliabideak agortu izana.

Ekonomia baliabideak agortzeagatik eta ez beste ezergatik ukatzen diren eskabideak, beste eskabide bat aurkeztuta, hurrengo ekitaldian ebatzi ahalko dira, aurrekontuan diru-izendapenik izanez gero; halakoetan, lehentasuna izango dute eskabide berrien gainetik.

**Artículo 12.- Recursos económicos**

1.- Se destinarán a las presentes ayudas una cuantía de 6.000 €, sin perjuicio de ulteriores incrementos derivados de disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de incorporaciones o generaciones de créditos. La existencia de una mayor disponibilidad presupuestaria será objeto de publicación en el BOG y no supondrá la apertura de un nuevo plazo de presentación de solicitudes.

Asimismo será objeto de publicación en el BOG el agotamiento de los recursos económicos destinados a las presentes ayudas.

Las solicitudes que se denieguen únicamente por falta de recursos económicos podrán ser resueltas, previa nueva solicitud, en el ejercicio siguiente si hubiera consignación presupuestaria, teniendo, en ese caso, prioridad sobre las nuevas solicitudes.

**Donostian, 2023ko maiatzaren 30ean**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.
2023 MAI. MAY. 30
Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,